

GIL 85 San Anton mendiko tonboloa



Getariako arratoiaren aireko panoramika; litologiak kontrolatutako istmoa nabari da. Argazkia: 'CC BY-3.0-ES 2012/EJ-GV/Irekia-Eusko Jaurlaritza/Mikel Arrazola'.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 18' 31,25 " N

Long.: 2° 12' 4,11" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 564.786,82 m

Y: 4.795.404,02 m



Nola iritsi

Getaria kostako N-634 errepidean dago, Zarautz eta Zumaia herrien artean.



Arratoiaren ikuspegia Zarauzko hondartzatik. Litekeena da buruaren eta gorputzaren mailak antzinako abrasio-plataformak izatea. 'CC BY-3.0-ES 2012/EJ-GV/Irekia-Eusko Jaurlaritz/Mikel Arrazola'.

GILaren deskribapena

“Getariako arratoi” ezaguna morfologia bitxi bat da; itsasoak landu du, Eozenoko flysh hareatsuko materialen higadura diferentziaz.

Arratoiaren sorreraren arrazoi nagusia Eozenoko flyscheko materialen kompetentzia-desberdintasuna da. Penintsulako muturra txandakatutako hareharri- eta limolita-banku lodiz osatuta dago; istmoan, berriz, material lutitikoagoak eta errazago higatzen direnak dira nagusi. Enbatak jotzen zuenean, kordoi mehe hori urpean gelditzen zen. Horregatik, egitura artifizial bat eraiki behar izan da; han, portuko arrantza-jarduerari lotutako pabiloi batzuk kokatu dira.

Irudiaren “gorputza” eta “burua” marrazten duten ondoz ondoko lautze mailakatuek eratu dute arratoiaren forma. Bi gainazal lautu horiek, ziur asko, itsas higadurak eragindako bi berdintze-maila dira, lehenagoko aldi interglaziarretan gertatuko zirenak, itsasoaren maila gaur egungo mailaren gainetik zegoenean. Goiko berdintze-maila agerikoa da, halaber, gaur egungo kosta-lerrotik hegoaldera, Askizu, San Prudentzio eta Eitzaga inguruan.

Behatzeko punturik onena

Zarauztik edo bi herrien arteko pasealekuko edozein puntutatik.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 43, GIL 45, GIL 48, GIL 103, GIL 135.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 88

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafiko/Sedimentologikoa		●		
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
Beste batzuk					
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- *Puntos de interés geológico de Gipuzkoa*. GFA. 1992.